

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu/enpresak funtzionatu ahal izateko beharrezkoa izango da beste konpainia batzuekin elkartzea, kasu honetan, bezeroei behar duten babes eta laguntza ematea ahalbidetzeko, bizilekua, arropa, janaria... Horretarako Karitasekin batzea izango da aukerarik eraginkorrena, bezero mota horiekin esperientzia gehiago baitute alderdi horretan.

Osasunari begira ordea, seguruena Gurutze Gorriarekin elkartzea da, esperientziaz gain, jendeak izan ditzaketen eta ordaindu ezin dituzten zaintzak eta tratamenduak eskainiko zaizkie horrela.

Hiru enpresen artean sorturiko elkarteari esker, euren kabuz bizi ezin diren pertsonei bizilekua, arropa, dirua, elikagaiak... eskainiko dizkiegu, hau da, bizitzeko beharrezkoa den guztia.